



Victorino Camarero Lara
GLHBI Bidasoa (Irún)
1. Saria Zikloak (Unielectrik)
Argazkiak: Sara Santos

“Kosmodisea heziketa-esperientzia paregabea da sormenari, ekimenari eta talde-lana sustatzeari dagokionean”

Victorino Camarero, Heziketa Zikloen kategorian lehen saria lortu duen Irungo Bidasoa GLHBIko bost ikasleko taldearen arduraduna da. Camarerok adierazi duenez Kosmodisean izan duten parte-hartzea oso ona izan da eta, nahiz eta egin behar izan duten lan gogorra izan, oso atsegina izan da lortu duten emaitzagatik.

Camarerok dioenez, ikasleek egokitu zaizkien rolak onartu dituzte eta *“beren esperientzia, beren kezka eta lan ona partekatu dute, eta horrek talde-lanean argiagoak eta arduratsuagoak bihurtarazi ditu.”* Bere ikasleek lortu duten emaitza bikainaren inguruan, Victoriano Camarerok, pasa den urtean izandako esperientzian oinarrituta, bere ikasleei Kosmodisean ezer ez dagoela ziurtatua ulertarazten saiatu zela dio, ezer ez dela opari eta bukaerara arte lan egin behar dela. *“Azken momentura arte tentsioa mantendu da eta, jasotako sarien inguruan eta lehiaketaren oinarriak uneoro onartuta, lehenak izan badira ere, bigarren eta hirugarren postuan geratu direnen sari berberak jaso dituztela kritikatu dute.”*

- Zure ustez, ikasleentzako zein balio positibo eskura daitezke Kosmodisean parte hartuz?
- *Talde-lanaren errendimendua hobetzeko rol egokiak finkatu eta onartzea. Horretarako, positiboa izan da probak gutxieneko denbora baten ondoren hastea, horrela, irakasleak hobeto ezagut baititzake ikasleen trebetasunak eta jarrerak.*

Harreman pertsonalak beti onak izan ez badira ere, egindako lan guztia aztertu ondoren, talde-lana, lanei lehenik era indibidualean ekitea eta ondoren talde-mailan, lortu den balio nagusiarena da.

Ikasleek aurreikusi gabeko egoeren aurrean duten lanerako eta moldatzeko ahalmena ikustea.

Izan ere, neska-mutilak oportetan zeuden hiru egunetan etorri dira lanera.

Azkenik, beste balio garrantzitsu bat ezarritako arauak onartzeko gaitasuna da.



HOBEKUNTZAK ETA ALDATU BEHARREKO ALDEAK

Victorino Camarero dio, bere ustez, Kosmodisea 2007-2008 edizioak “*pasa den urtearekin alderatuz, puntuazio-sistema hobetu du, objektiboagoa baita taldeak besteekin konparatuz kokatzea, besterik gabe baloratzea baino. Kosmodiseak ere faktore zuzentzailea hobetu du, ideia-jasan egindako hasierako ekarpenak baloratuz, eta “simulatzailearen” zatia gutxiago puntuatuz, jokoak emaitza ausazkoagoa ematen baitu, eta, nire ustez, ez hain bidezkoa.*”

Bestalde, irakasleak materialak aurrez denbora gehiagorekin izateko aukera eta horien kalitate hobeaz azpimarratu dituzte puntu garrantzitsu gisa, bai eta “Berriak” atala, ohar garrantzitsuen kasuan, egokiago eta garaiz ere ibili dela. “*Hobetzeko, agian, ikasleen sarien atalean, saria desberdinduz: postu hobeak, sari hobeak, gainontzeko kolektiboekin egiten den bezalaxe.*”

- Kosmodiseako datorren edizioan parte hartuko duzu?
- Datorren urtean, gure institutuan, heziketa-moduluen programazioa egokitzen hasiko gara. Kosmodisea proiektua heziketa ekintzaile berrian -“AGCPE” modulua- sartzen da, eta hori bi urte barru “Enpresa eta Ekimen Ekintzailea” delakoagatik ordezkaturiko da, ordu gutxiagorekin. Aldaketa horretarako moldaketari datorren ikasturtean ekingo diogu eta

Modulu berria ezarri arte, aurreikus daitekeenez bi urte barru, uste dut, pertsonalki, ezingo dudala heziketa-esperientzia berritzaile eta interesgarri honetan parte hartu.

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, oharrak, kritikak....
 - *Heziketa-maila guztientzat, Kosmodisea heziketa-esperientzia paregabea dela uste dut sormena eta ekimenari eta talde-lana sustatzeari begira. Bestalde, hainbat heziketa-mailatan (ia Batxilergora arte, hau barne) horrelako esperientziek soilik ematen digute kultura ekintzailea garatzeko aukera.*